

AURKIBIDEA.

I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.

1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA.

2. KONTRATUAREN HELBURUA.

3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA.

3.1 HASIERAKO AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK.

4. PROIEKTUAREN HELBURUA, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA- BALDINTZAK.

4.1 JARDUERAREN HELBURUAK.

4.2 JARDUKETA ESPARRUA.

4.3 ERAIKUNTZA-BALDINTZAK.

4.4 AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA.

5. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK.

5.1 IRIZPIDE OROKORRAK.

5.1.1. HIRIGINTZA JASANGARRIAREN IRIZPIDEAK TXERTATZEA.

5.1.2. GENERO ETA HIZKUNTZA IKUSPEGIA TXERTATZEA.

5.1.3. HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN GARRANTZIA.

5.2 IRIZPIDE ZEHATZAK.

5.2.1. LIBURUTEGI TRADIZIONALETIK HARAGO DAGOEN EREDU BERRIA LANTZEA.

5.2.2. LIBURUTEGI INKLUSIBOARI DAGOKIONEZ.

5.2.3. ERAIKINAREN MALGUTASUNARI DAGOKIONEZ.

5.2.4. ERAIKINAREN BALIOA AZPIMARRATZEA.

5.2.5. ERAIKIN JASANGARRIARI DAGOKIONEZ.

5.2.6. ERAIKINAREN EFIZIENTZIA ENERGETIKOARI DAGOKIONEZ.

5.2.7. OBRA FASEKA ANTOLATZEKO BEHARRARI DAGOKIONEZ.

6. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA.

6.1 LEHENENGO FASEA: AZTERKETA LANA ETA AURRE-PROIEKTUA.

6.1.1 INFORMAZIOA ETA AZTERKETA.

6.1.2 HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAREN DISEINU OROKORRA ETA SAIOAK GAUZATZEA.

6.1.3 AURREPROIEKTUA.

6.2 BIGARREN FASEA: OINARRIZKO PROIEKTUA ETA JARDUERA PROIEKTUA.

6.2.1 OINARRIZKO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN EDUKIA.

6.2.2 OINARRIZKO PROIEKTUA ETA JARDUERA PROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.

6.3 HIRUGARREN FASEA: EXEKUZIO-PROIEKTUA.

6.3.1 EXEKUZIO-PROIEKTUAREN EDUKIA.

6.3.2. EXEKUZIO-PROIEKTUAK BETE BEHARREKO ARAUAK.

6.3.3. PROIEKTUKO SALNEURRIAK ZENBATESTEN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

6.3.4. EXEKUZIO-PROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.

7. LAN TALDEA.

8. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA.

9. EGINDAKO LANEN JABETZA.

II. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EZAUGARRIAK.

1. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOA.

2. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOAREN LUZERA.

III. ERANSKINAK.

- I. ERANSKINA: "Tolosako udal ekipamenduak 2 - Berrantolaketarako plan estrategikoa".
- II. ERANSKINA: Eraikinaren hirigintza fitxa JK25011 (PERI).
- III. ERANSKINA: Argazkien eranskina (egungo egoera).
- IV. ERANSKINA: Eraikinaren planoak – egungo egoera (pdf) .
- V. ERANSKINA: Programa berriaren guneen funtzioak eta ekipamendua.

I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.

1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA.

Plegu honen helburua da deskribatzea eta definitzea Tolosako Trianguloa plazako 1. zenbakian kokatutako eraikina birgaitzeko exekuzio-proiektuaren eta jarduera-proiektuaren idazketa zerbitzuaren lanak, eta, halaber, kontratua arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea.

2. KONTRATUAREN HELBURUA.

Kontratuaren helburua da Tolosako Trianguloa plazako 1 zenbakian kokatutako eraikina birgaitzeko **EXEKUZIO-PROIEKTUA ETA JARDUERA-PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUAK EMATEA.**

- Lan hauek egin behar dira:

Goian aipatutako Exekuzio-Proiektua eta Jarduera Proiektua idaztea; Udalarekin eta herritarrekin egin beharreko bileretan asistentzia teknikoa ematea.

Exekuzio Proiektuaren idazketan sartzen dira, bereziki, Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta gainerako aplikazio arauetan ezarritakoak.

Behar izanez gero, kontratu honen zereginen artean honakoak ere aurkitzen dira: proiektua aldatu edota osagarri guztiak idaztea.

3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA.

3.1. HASIERAKO AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK.

Tolosako Udalak jabetzan duen Trianguloa plazako 1 zenbakidun eraikinean gaur egun Kultur Etxea dago. *Hiritik at* enpresak eginiko udal kultur eraikinen azterketan ondorioztatu denaren arabera, Tolosako kultur jardueran erreferentziala da eraikin hori eta hori nabaritu egiten da bere barne mugimenduan. Bilera gelak eta erabilera anitzeko aretoa gain-okupatuta daude maiz. Espazio horiek bere gain hartu dezaketean aktibitatea baino demanda handiagoa dago herritarren aldetik.

Gain-okupazioari dagokionez, Aranburu jauregiko Artxiboak eta Liburutegiak dute arazo gehien. Ez dute leku fisikorik daukaten material guztia behar bezala artxibatzeko edo funtsa zabaldu ahal izateko. Horren ondorio garbia da haur eta helduen liburutegia espazio ezberdinetan ezarri behar izana, horrek dakartzan arazo nabarmenekin: langileria bikoiztu behar izana, bi espazioen mantentze kostua, koordinazio lanak, etab.

Aldi berean, Kultur Etxean erabilera berriak planteatu nahi badira, egokitzapen lanak egin beharko direla ondorioztatu dute. Eraikina bera barrutik zaharkituta egoteaz gain, besteak beste, irisgarritasun baldintzak ez daude bermatuta gaur egun.

Beraz, *Hiritik at* enpresak egindako "Udal Kultur Ekipamenduen Azterketa" izeneko dokumentuan ondorioztatutakoaren eta proposatutakoaren arabera, eraikin honetan Liburutegi Berria kokatuko da: espazio berritzailea izango den liburutegiaren kontzeptuaz harago doan planteamendua.

4. PROIEKTUAREN HELBURUA, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA-BALDINTZAK.

4.1. JARDUERAREN BEHARRAK ETA HELBURUAK.

- Kultur Etxea: eraikin hau Tolosako kultur mugimenduan erreferentziala izaten jarraitzea.

- Kultur Etxeko eraikina birgaitzea, araudi berrietara egokitzeko aprobetxatuz, bereziki irisgarritasunari eta segurtasunari dagokionez.
- Liburutegi bateratu eta handiago baten beharra nabarmena da.
- Liburutegi tradizionalaren kontzeptua gainditu behar da eta eskakizun berrietara egokituko den liburutegi eredua landu behar da.
- Liburutegi INKLUSIBOA.
- Obra hasi aurretik, eraikin honetan garatzen ari diren jarduerak eta zerbitzuak beste espazio batzuetara eramán beharko dira, batez ere, Gorosabel Zaharrera eta Aranburu jauregira.
- Programa berria: liburutegia eta erabilera askotako gela.

4.2. JARDUKETA ESPARRUA.

Tolosako Trianguloa plazako 1 zenbakian dagoen eraikina osotasunean zaharberrituko da eta "Hitzaren Etxea" bilakatuko da. Jarduera aldaketa horrek barne banaketaren aldaketa ere badakar.

Eraikina Tolosako Hirigune Historikoaren barruan dago eta oinarrizko babesak dauka. Behe oina, beste hiru solairu eta teilatupea (ganbara) dauzka, guztira, 1.800 m² inguru.

Jarduketak eraikinaren birgaitzea du helburu, eta, bertan garatuko diren jardueretara egokitzeaz gain, segurtasuna eta irisgarritasuna ere bermatu beharko dira.

Horretarako, barne elementu batzuk eraistea proposatzen da, horien berritzea ahalbidetzeko: eskailera, tabikeak, kanpoko eta barneko arotzia, eta instalazioak. Akaberak berritzeaz gain, isolamendu termikoa eta akustikoa ere hobetuko da. Fatxada margotzea eta atontzea ere proposatzen da. Klimatizazioa eta igogailua egongo dira. Beharrezkoa ikusiko balitz, eraikinaren handitzeko aukera ere aztertu beharko litzateke lan honen barnean, betiere GFAko Ondare Sailaren oniritzia jaso beharko lukeen proposamena landuta. Atal edo eranskin bereizi batean, barne ekipamendua/altzariak ere proiektuan garatuko dira, espazioaren diseinuarekin harreman handia baitauka. Erabilera publikoa den heinean, segurtasun neurriak indarrean dagoen araudien arabera ezarriko dira.

Liburutegi berria liburutegiaren kontzeptu tradizionalaz harago doan planteamendua da: liburuen gordailu soil bat izateko hitzaren eta jakinduriaren inguruko topaleku inklusibo bat izateko diseinatuko da.

4.3. ERAIKUNTZA BALDINTZAK.

Dokumentu honetan ezarritako baldintzak edo premisak herritarren parte-hartzea izan duen azterlanean ondorioztatutakoak dira. Plegu tekniko honetan ezarritako baldintzak erabiliko dira oinarrizko proiektuaren eta exekuzio-proiektuaren oinarri bezala. Dena den, exekuzio-proiektuak azterketa fasean sortutako baldintza eta beharrei erantzun beharko die. Legedian agertzen diren alde teknikoak betetzen dituzten aldaketak onargarriak izango dira, betiere dagokion justifikazioa medio.

Beraz, proiektuak baldintza hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Eraikin honek Tolosako kultur mugimenduan erreferentziala izaten jarraitu behar du.
- Eraikina Tolosako Hirigune Historikoaren barruan dago eta oinarrizko babesak dauka. Multzorako historiko arkeologikoaren eremuan kokatuta dago.
- Eraikina birgaitu eta gune malgu bilakatu behar da: barne-egiturak izan behar du unean uneko beharren arabera espazioak aldatzeko eta moldatzeko modukoa. Tabike mugikorren baliabide arkitektonikoa erabili ahal izango da malgutasun handiagoa lortzeko.

- Egungo eraikinaren egitura liburutegiak duen zamari eusteko nahikoa den konprobatzeko kalkulua egingo da, eta, egituraren errefortzua behar izanez gero, horren kalkulua eta lanak zehaztea proiektuaren barnean egongo dira.
- Efizientzia energetikoa hobetze aldera, energia berriztagarriak planteatuko dira, material jasangarri eta ekologikoen erabilerarekin batera.

4.4. PROGRAMA BERRIA.

4.4.1 PROGRAMA BERRIKO GUNEA.

Eraikinean honako gune hauek antolatu beharko dira, oinarri hauetan ezarritako ezaugarri guztiak kontuan izanik:

1. HARRERA ETA SUSTAPENERAKO GUNEA _____ 300 m² inguru

1.2 Sarrera.

1.3 Erabilera anitzeko gunea eta bere biltegia.

1.4 Prestakuntzarako eta sustapenerako gunea: ikasgelak eta taldeko lanak egiteko gela txikiak, bilera-gelak edo talde txikiek erabiltzeko guneak (idazketa tailerrak, irakurketa klubak, Esperientzia Eskola, erabiltzailearen heziketa, mintzalagunen topaketak edo hizkuntz eskola informalak...). Horiez gain, erakusketa txikiak edo informalak jartzeko gune bat (Tolosa bildumaren ingurukoak, argazki erakusketak, biblioporrak...).

2. GUNE OROKORRA: HELDUENTZAKO EREMUA _____ 900 m² inguru

2.1 Informazio-puntuak eta funtsa orokorra.

2.2 Hemeroteka eta komikiteka.

2.3 Bideoteka, fonoteka eta hainbat ordenagailu interneterako sarbidea dutenak eta erabilpen librea. KZgunea bertan egotea komenigarria da.

2.4 Tokiko bilduma, kontsultarako gunea.

2.5 Gazteentzako gunea (13-16 urte bitartekoentzat).

2.6 Hainbat interesgune: Irakurketa erraza (irakurtzeko zailtasunak dituztenentzako egokitutako liburuez osaturiko gunea), Jatorrizko bertsioa (hainbat hizkuntza ikasteko edo hainbat hizkuntzatan irakurtzeko aukera ematen duen gunea).

3. HAURRENTZAKO GUNEA _____ 200/300 m² inguru

3.1 Informazio-puntua eta mailegurako ikus-entzunezkoak (DVDak, CDak).

3.2 Txiki-txokoa (0-5 urte bitartekoentzako funtsa eta irakurtzeko lekuak).

3.3 Irakurgela, hemeroteka eta komikiteka (6-12 urte bitartekoentzako funtsa eta irakurtzeko lekuak).

3.4 Bideoteka, fonoteka eta ordenagailuak kontsultatzeko lekua.

3.5 Eskolako lanak egiteko gunea (6-12 urte bitartekoentzat).

3.6 Hainbat interesgune: Gurasoentzako txokoa (haurtzaroarekin loturiko gaietan interesa duten helduentzako bilduma) Jatorrizko bertsioa, Bularretik mintzora...

4. BARNE-LANERAKO GUNEA _____ 130 m² inguru

4.1 Zuzendariaren bulegoa eta barne-lanak egiteko gunea.

4.2 Liburu biltegia eta biltegi logistikoa (material eta altzarien biltegia).

4.3 Atsedenguneak.

5. ZERBITZUGUNEA

5.1 Zerbitzuguneak: garbiketa tresnen gordelekua, komunak, pasabidea, eskailera, igogailua, instalazioen gela....

4.4.2. LIBURUTEGIAREN BEHARRAK.

- Funtsa, guztira: 48.000 liburu eta 180 egunkari/aldizkari, urtero % 10eko hazkundera izateko lekua.
- Irakurtzeko eta ikus-entzuteko lekuak: 140 inguru.
- Ordenagailuak kontsultatzeko lekuak: 33 inguru.
- Ikasketa gela bat egon behar du, zeinak sarrera independentea izan behar duen, langileen ordutegietatik kanpo zerbitzua eman ahal izateko.
- Liburutegi osoak premia bereziak dituztenentzako egokituta egon behar du, esate baterako, ikusmen edota entzumen arazoak dituztenentzat.
- Espazio ekologikoa: arkitektura ekologikoa eta ingurumena zaintzeko moduko planteamenduak bultzatuko dira, eta, horretarako, estrategia hauek aztertuko dira: eraikinak ia energia-kontsumorik ez izatea edo, gutxienez, eraikinaren kontsumoak ahal den gehien hobetzea lortzen dutenak jartzea.
- Barne-diseinuaren erakargarritasuna areagotzeko estrategiak eta espazioaren irudi publikoa hobetzeko proposamenak bilatuko dira proiektua garatzerakoan.
- Beharra ikusten bada, eraikinaren handitzea ahalbidetzeko proposamena landu, GFaren irizpideei jarraikiz. Esaterako, komunikazio bertikalerako nukleo berri bat sortuz, sarrera plazatik azpimarratzeko elementua erantsiz...
- Gerta liteke, obra egin bitartean, eraikinak partzialki funtzionamenduan egon behar izatea. Beraz, obra faseka gauzatu beharko balitz, hau da, eraikina aldi berean osotasunean hustea ezinezkoa izango balitz, proiektuko faseak landu beharko lirateke kontratu honen barruan. Kasu horretan, bertako zerbitzuen arduradunarekin adostutako erabileren behin-behineko berrantolaketa planifikatuko litzateke.
- Eraikinak inguruko eremu publikoekin duen erlazioa landu egin beharko da, eta dagokion justifikazioa jasoko da proiektuan. Eraikinean eragin zuzena duten inguruko eremu publikoen eraberritze- eta berritze-lanak ere aurreikusi beharko dira, beharrezkoa izango balitz.

4.4. AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA.

Kultur Etxeko eraikina zaharberritzeko obrarako honako Exekuzio Materialeko Aurrekontu hau **zenbatetsi** da: **1.440.000,00 euro (800 €/m²)**. Beraz, obraren zenbatekoa, guztira, 2.073.456,00 euro izango da, BEZa barne (% 21).

Proiektuan atal bereizi batetan altzariei dagokien aurrekontua garatu beharko da, eta atal hori aurreikusitako aurrekontu honetatik kanpo geratzen da.

5. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK.

Proiektua garatzeko orduan, honako irizpide nagusi hauetan oinarrituko da lana:

5.1. IRIZPIDE OROKORRAK.

5.1.1. HIRIGINTZA JASANGARRIAREN IRIZPIDEAK TXERTATZEA.

Hirigintza jasangarriaren helburu nagusien artean dago lehendik dauden eraikinak berrerabiltzea. Hori oinarritzeko da hiri-egiturarako eta hiriko gizarte eta ingurumen-iraunkortasunerako. Beraz, Tolosako hirigune historikoan dagoen eraikin baten eraberritzea proposatzen da, bertan herritarren gaurko beharrei erantzuna emateko. Proposamenak lantzerakoan, herritarren beharrak izan beharko dira oinarri, etorkizunean izango diren beharrak asetzeko nolabaiteko malgutasuna eskainiz.

5.1.2. GENERO ETA HIZKUNTZA IKUSPEGIA TXERTATZEA.

Gizarteak, eta, kasu honetan, tokiko administrazioak, emakume eta gizonen arteko aukera eta eskubide berdintasuna sustatu behar du; horretarako, ezinbestekoa da genero ikuspegia txertatzea prozesuaren fase guztietan.

Hizkuntzari dagokionez ere bereziki aztertuko da, are gehiago Liburutegi Berriaren proiektua izanda.

5.1.3. HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN GARRANTZIA.

Lan honetarako ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea, beraiek baitira herrian bizi direnak, ekipamendua erabiltzen dutenak. *Hiritik at* enpresak udal ekipamenduei buruz egindako azterketan herritarren iritzia kontuan hartu dute eta horren ondorio bat dugu Hitzaren Etxea proiektua. Beraz, herritarren beharrei emandako erantzuna da jada liburutegi bateratua eta berritzailearen proiektua. Horretaz gain, eraikinaren proiektua garatzeko unean ere, herritarren parte hartzea egin behar da. Hala, liburutegiarekin harreman estuagoa daukaten herritar zein erakunde eta elkarteei prozesuan parte-hartzeko gonbidapena egingo zaie.

Parte-hartze prozesuaren aurkezpenerako eta dinamiketarako beharrezko materiala (laburpenak, txostenak, planoak, argazkiak, komunikazio euskarriak, e.a.) ere prestatu beharko da.

5.2. IRIZPIDE ZEHATZAK.

5.2.1. LIBURUTEGI TRADIZIONALETIK HARAGO DAGOEN EREDU BERRIA LANTZEA.

Udal liburutegi berriaren eginkizunak eta helburuak:

Liburutegi publikoa, alde batetik, informazioa eskuratzeko gunea da, edo bestela lortzen zailak diren materialak —adibidez, beste kulturetako, beste hizkuntza batzuetan plazaratutako edukiak— erraz eta dohainik erdiesteko bidea. Bestetik, era askotako jendearen topalekua eta teknologia berriak edonoren esku jartzeko gaitasuna duen zerbitzua da. Era berean, ezagutzarako ataria ere bada, besteak beste, hizkuntzak (bertakoak nahiz urrunekoak) ikasteko tresna ugari eskaintzen duena. Halaber, kultura, aniztasuna, irakurzaletasuna bultzatzeko eragile aktiboa denez, aisialdiari, kulturartekotasunari eta irakurzaletasunari lotutako ekintzak antolatu behar ditu bere espazio fisikoetan. Ildo horretatik, prestakuntza (bakarkakoa edo taldeka) eskaini behar du, erabiltzaileek eskaintzaz baliatzeko izaten dituzten oztopoak edo zalantzak ezabatzeko, liburutegiko bisitaldiari etekin gehiago ateratzeko.

Eredua lortzeko, antolaketa proposamen hau egiten da, hainbat eremu sortuz:

1. HARRERA ETA SUSTAPENERAKO GUNEA
2. GUNE OROKORRA: HELDUENTZAKO EREMUA
3. HAURRENTZAKO GUNEA
4. BARNE-LANERAKO GUNEA ETA ZERBITZUGUNEA

5.2.2. LIBURUTEGI INKLUSIBOARI DAGOKIONEZ.

Liburutegi inklusiboan erabiltzaile guztiak pertsonalki zein sozialki sustatzen eta garatzen dira. Denak dira gai beren kabuz eraikineko edozein zerbitzuz baliatzeko, eta denek erabili behar dute eraikina bere osotasunean, duten nazionalitate, kultura edota zailtasuna dutela. Liburutegi inklusiboak, beraz, guztion eskura ipintzen den baliabide integral bat eskaintzen digu, garapen sozial eta pertsonala indartuz.

Herritar guztiontzat da eta dibertsitateari erantzuten dio, komunitatea osatzen duten guztiak baloratuz. Berdintasunean/ezberdintasunetan oinarrituz, herritarren beharrezko erantzuteko tresna gisa ulertzen da, bakoitzaren ezaugarri pertsonalak, psikologikoak... kontuan harturik. Dibertsitatean eta diskriminaziotik at garapen pertsonalerako gunea izan dadila bilatzen da. Ondorioz, liburutegiak era guztietako erabiltzaileak jasotzeko prest egon behar du, lan egiteko modurik egokiena, bakarkako lana, talde lana eta elkarlana ahalbidetuz.

Azken finean, inklusioa giza eskubide bat da. Booth-en hitzetan (irakasle britainiarra, brta munduko erreferente handienetako bat hezkuntza inklusiboaren alorrean), inklusioa komunitatea eta parte-hartzea da.

Hona hemen eskola inklusiboaren helburu orokorrak:

- Liburutegia gune eraginkorra izan dadin lortzea: herritar bakoitzarentzat baliabide esanguratsua eskaintzea.
- Herritar bakoitzari independentzia, errespetua eta erantzukizuna garatzeko aukera eskaintzea.
- Herritar guztiei garatzeko aukera ematea.
- Erabiltzaile bakoitzaren ezaugarriei erantzungo dien eraikina diseinatzea, irisgarritasun fisikotik harago doana, besteak beste, seinale akustikoak edota ONCEk adierazitako neurriez baliatuz.
- Diskriminazioarekin amaitzeko tresna bezala. Izateko, bizitzeko eta bizikide izateko trebeziak eskuratzeko gunea.

5.2.3. ERAIKINAREN MALGUTASUNARI DAGOKIONEZ.

Gaur egun bizi ditugun gizarte-eraldaketa azkarrei erantzuna emateko prest egon beharko du eraikinak, hau da, denbora aurrera joan ahala sortuko diren behar eta erabilera mota berriak asetzeko bilakaera modu erraz batean gauzatzeko aukera eman beharko du. Eraikina, nolabait, gizartearekin eta haren garapenarekin batera eraldatzeko gai izatea eskatzen da. Azken finean, eraikinean eskaintzen den zerbitzuak aldaketak eskatuz gero, eremuen antolaketaren malgutasuna ahalbidetzea ezinbestekoa da, gizartearen eboluzioa obrak egiteko gaitasuna baino erritmo azkarragoan doa eta.

5.2.4. ERAIKINAREN BALIOA AZPIMARRATZEA.

Zaharberritze honen xede den eraikina Tolosako Hirigune Historikoan kokatuta dago eta oinarritzko babesa dauka. Horretaz gain, herritarrek erreferentzia gisa hartu dute eta bere kokapena estrategikoa da, Alde Zaharren eta Zabalgunearen arteko mugan.

Eraikinaren berezko balioa azpimarratuko duen proposamena bilatzen da, itxura berritzailearekin modu zuhur batean konbinatuz.

5.2.5. ERAIKUNTZA JASANGARRIARI DAGOKIONEZ.

Eraikuntza jasangarria, arkitektura iraunkorra edo ekologikoa, ingurumenarekin errespetu handiz jokatzeko duena da, eta energiaren erabilpen iraunkorra egiten du. Horretaz aparte, energia berriztagarrietan ikertzerako behartzen du, material batzuek naturan duten eragina aztertzearekin batera. Honelako eraikin batek energia kontsumo minimoa lortu nahi du, eta horrekin batera, beste helburu nagusia da material ekologikoak eta erraz birziklatzekoak erabiltzea, alegia, material jasangarriak erabiltzea.

Eraikuntza jasangarriak honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan:

- Baliabideen kontserbazioa.
- Baliabideen berrerabilpena.
- Eraikuntzarako material berriztagarrien erabilpena.
- Materialen bizi-zikloa kontuan izanda, hondakinen aurrezaintza.
- Energia kontsumoa gutxiagotzea.
- Urbanizazioan eta eraikuntzan konforta areagotzea.
- Ingurumenaren babesa.
- Eraikuntzetan inguru ez toxikoa sustatzea.

5.2.6. ERAIKINAREN EFIZIENTZIA ENERGETIKOARI DAGOKIONEZ.

Arkitektura ekologikoan oinarritutako eraikina bilatzen da: ingurumena zaintzeko moduko planteamenduak bultzatuko dira, eraikinak ia energia-kontsumorik ez izateko, edo, gutxienez, eraikinaren kontsumoak hobetzea lortzeko. Barne-diseinuan efizientzia energetikoa areagotzeko estrategiak baloratuko dira, besteak beste, instalakuntzei dagokienez.

Azterketa lanen artean, eraikinaren efizientzia energetikoa landu behar da, ahalik eta gehien hobetzeko: energia-kontsumoari eta aurrezpen eta efizientzia energetikoaren maila potentzialei buruzko diagnostiko bat egin behar da, eta hori guztia hobetzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko proposamenak eman.

5.2.7. OBRA FASEKA ANTOLATZEKO BEHARRARI DAGOKIONEZ.

Gerta liteke, obra egin bitartean, eraikinak partzialki funtzionamenduan egon behar izatea. Beraz, obra faseka gauzatu beharko balitz, hau da, eraikina aldi berean osotasunean hustea ezinezkoa izango balitz, proiektuko faseak landu beharko lirateke kontratu honen barruan. Kasu horretan, bertako zerbitzuen arduradunarekin adostutako erabileren behin-behineko berrantolaketa planifikatuko litzateke.

6. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIKAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA.

6.1. LEHENENGO FASEA: AZTERKETA LANA ETA AURREPROIEKTUA.

6.1.1. INFORMAZIOA ETA AZTERKETA.

Fase honetan egin beharreko lanak hainbat egoera eta arazori buruzko azterketa teknikoak barneratzen ditu; hala, liburutegi eredu berria gauzatu ahal izateko, hainbat erabaki hartzeko azterketa egingo da, kontuan hartuz liburutegiko arduradunen, Hirigintza Saileko teknikoaren eta erabiltzaile batzuen irizpideak. Horretarako, idazlearen eta agente horien arteko bilerak antolatuko dira. Azterketa hori lehendik eginda badago ere, arkitekto adjudikaziodunak eguneratu, osatu eta sakondu egin beharko du azterketa hori.

Besteak beste, honako hauek aztertu beharko dira:

- Liburutegi eredu berriaren betekizunak eta antolamendua (udal teknikariek hartu emana, beste eredu berritzaile batzuen azterketa, gidaliburuak...).
- Beharrezkoa ikusiko balitz, Euskal Herriko hainbat liburutegitara bisita bateratuak egiteko aukera (Udala + lan-taldea).
- Liburutegi eredu berria eraikinean gauzatzeko aukeren lanketa, eta behar izanez gero, aukera horien aurkezpena, udal teknikarien oniritzia jasotzeko.

- Eraikina Tolosako Hirigune Historikoan sartzen denez, eta oinarrizko babesak daukan heinean, azterketa tekniko eraikinaren interesa indartze aldera (Gipuzkoako Foru Aldundian kontsulta barne).
- Eraikinaren efizientzia energetikoaren hobekuntza.
- Irisgarritasunari, segurtasunari eta espazioen arteko soinu- transmisioari dagokion azterketa.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen elkarten iritzia eta premiak, esate baterako, ikusmen edota entzumen arazoak dituztenenak.
- Eraikinaren egituraren egoeraren azterketa (liburutegi jarduerak duen gehieneko zamari eutsi diezaiokeen edo ez).
- Liburutegiarekin harreman estua daukaten elkarte edota erabiltzaileek parte-hartzeko bilerak, haien beharrak eta proposamenak ezagutzeko asmotan; baita eredu berriaren kontzeptua haiei azaltzeko ere (6.1.2. puntuan garatua).
- Proposamena errealitate fisikora egokitu dadin, eraikinaren egungo egoeraren altxatzea egingo da, Udalak dwg formatuan emandako planoen egiaztapena, alegia.

6.1.2. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAREN DISEINU OROKORRA ETA SAIOAK GAUZATZEA.

Parte hartzeko prozesu osoaren diseinua eta garapena ere barneratuko da fase honetan. Beraz, eragile eta herritarrak identifikatuko dira, prozesuan parte hartzeko, eta gutxienez 3 saioen diseinua eta metodologia orokorra landuko da.

Saioei begira, komunikazio euskarriak, informazioaren eta azterketa dokumentuaren laburpenak prestatuko dira; ondoren, saioen metodologia zehaztu eta difusioa egingo da, eta parte-hartze prozesuko saioak gauzatu dira. Hiru saio horiek azterketa lanaren, proposamenaren garapenaren eta aurreproiektuaren edo alternatiben aurkezpena egitera zuzenduta egongo dira. Prozesuan jasotakoak txosten batean bilduko dira eta proiektua garatzeko erabiliko dira. Metodologia horretan zehaztuko da saioak zein fasetan egingo diren eta saioen ondorioak noiz eta nola aurkeztuko diren (herritarren beharrak lantzeko saio bat gutxienez lehenengo fasean egingo da).

6.1.3. AURREPROIEKTUA.

6.1.3.1 AURREPROIEKTUAREN EDUKIA.

Adjudikaziodunak aurreproiektua idatzi beharko du; tekniko eskudun batek (arkitektoa) izenpetuta egon behar du eta ez dagokio elkargo profesionalaren bisaturik.

Betiere, aurreproiektua idatzi behar da kalterik egin gabe indarrean dagoen arloko legeriak eta EKTK xedatutakoari, eta nahitaez agiri osagarri hauekin aurkeztu behar da:

- a) Memoria: proiektuaren aurrekariak eta xedea, aplikatu beharreko araudia, proposamenaren deskribapena. Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekiko egokitzapena eta aplikagarri gertatzen diren beste lege-xedapenetan ezarritakoa betetzeari buruzkoa (ondare babestua).
- b) Egituraren azterketa: proposamenari dagokion zamari eusteko erresistentziaren aurrekalkulua
- c) Aurrekontuaren laburpena (aurreproiektu maila): atalak adierazita.
- c) Planoak (aurreproiektu maila): kokapena, plantak (kotadunak eta azalerekin), ebaketak (kotadunak), irisgarritasun legearen betetzea adierazita.
- e) Barne espazioen infografiak (Udalak beharrezko iritiz gero, ulergarri izan dadin).

Oro har, proiektu teknikoak eta gainerako agiri osagarriek nahikoa dokumentazioa eduki behar dute programa proposamena, eraikinaren funtzionamendua eta diseinua modu argian irudikatzeko, gutxieneko aplikazio-irizpideei jarraikiz, Administrazio Publikoetarako indarrean dagoen kontratazio-legeriaren arabera. Aurreproiektuak bermatu beharko du proposatutakoa exekuzio-proiektuan garatzea posible izango dela, eta entitate txikiko aldaketak onargarriak izango dira.

6.1.3.2.- AURREPROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.

Dokumentazio guztia erregistro elektronikoen bidez aurkeztu behar da, eta paperean eta formatu digitalean (CDa/pendrivea) ere bai. 3 kopia aurkeztuko dira.

Agiri guztiak modu ordenatu eta zehatzean aurkeztuko dira idazteko eta marrazteko kalitaterik oneneko paperean, eta neurritz kanpoko edo erabiltzen zailak izan daitezkeen tamainako planoak ekidinda.

Dokumentazio idatzia eta azterketa osagarriak formatu editagarrian aurkeztu behar dira (Word, Excel edo azterketa horiek idatzi, erabili eta/edo aztertze beharrezkoa den beste edozein formatutan) eta PDF formatuan ere bai.

Dokumentazio grafikoa formatu editagarrian (dwg) eta PDF formatuan aurkeztu behar da.

Dokumentu teknikoetako edukiek euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute, honako hauek behintzat:

- memoria orokorra
- planoak
- aurrekontuaren laburpena

Hizkuntza ez sexista erabili behar da dokumentazio guztian, indarreko xedapen eta araudiei jarraikiz.

Fase honek 4 HILABETEKO IRAUPENA izango du: kontratua sinatu eta hurrengo egunean hasiko da eta dokumentua aurkeztutakoan bukatuko. Honako hauek osatuko dute lehen faseko txosten hau: Informazioa eta Azterketaren Txostena, Herritarrek Parte Hartzeko Prozesuaren Metodologia dokumentua eta horietan oinarritutako AURREPROIEKTUA dokumentua.

6.2. BIGARREN FASEA: OINARRIZKO PROIEKTUA ETA JARDUERA PROIEKTUA.

6.2.1 OINARRIZKO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN EDUKIA.

Adjudikaziodunak proiektua idatzi beharko du; tekniko eskudun batek (arkitektoa) izenpetuta egon behar du eta ez dagokio elkargo profesionalaren bisaturik.

Betiere, proiektua idatzi behar da kalterik egin gabe indarrean dagoen arloko legeriak eta EKTk xedatutakoari, eta nahitaez agiri osagarri hauekin aurkeztu behar da:

a) Memoria: proiektuaren aurrekariak eta xedea, aplikatu beharreko araudia, proposamenaren deskribapena. Eraikin inklusiboa gauzatzeko ezarriko diren neurrien azalpena eta justifikazioa jaso beharko ditu. Era berean, indarrean dagoen hirigintza-araudiarekiko egokitzapena eta aplikagarri gertatzen diren beste lege-xedapenetan xedatutakoa betetzeari buruzkoa (ondare babestua). Jardueraren deskribapena (helburua eta jardueraren garapenaren teknikak, instalazioak, erregaiak, higiene instalazioak...) eta jarduera horrek ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan eragin ditzakeen kalteak gutxitzeko ezarri diren neurriak azaldu.

b) EKTren justifikazioa: ESI eta SS.

c) Irisgarritasun-legearen justifikazioa.

d) Egituraren azterketa: proposameneko zamari eusteko ahalmenaren konprobazio-kalkulua.

- e) Birgaitze-proiektuaren efizientzia energetikoaren azterketa eta proposamena.
- f) Soinuaren azterketa eta proposamena.
- g) Aurrekontua: laburpena atalka.
- h) Planoak: kokapena, plantak (kotadunak eta azalerekin), ebaketak (kotadunak), irisgarritasuna eta suteen aurreko egoera (ebakuazio ibilbideak, okupazioa...).
- i) Lanak garatzeko planifikazio orokorra, orientazio gisa.
- j) Barne espazioen infografiak (Udalak beharrezkoa iritziz gero, ulergarri izan dadin).

Oro har, proiektu teknikoak eta gainerako agiri osagarriek nahikoa dokumentazioa eduki behar dute programa proposamena, eraikinaren funtzionamendua eta diseinua modu argian irudikatzeko, gutxieneko aplikazio-irizpideei jarraikiz, Administrazio Publikoetarako indarrean dagoen kontratazio-legeriaren arabera. Oinarrizko-proiektuak bermatu beharko du proposatutakoa exekuzio-proiektuan garatzea posible izango dela, eta entitate txikiko aldatetak onargarriak izango dira.

6.2.2.- OINARRIZKO PROIEKTUA ETA JARDUERA PROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.

Dokumentazio guztia erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu behar da, eta paperean eta formatu digitalean (CDa/pendrivea) ere bai. 3 kopia aurkeztuko dira.

Agiri guztiak modu ordenatu eta zehatzean aurkeztuko dira idazteko eta marrazteko kalitaterik oneneko paperean, eta neurritz kanpoko edo erabiltzen zailak izan daitezkeen tamainako planoak ekidinda.

Dokumentazio idatzia eta azterketa osagarriak formatu editagarrian aurkeztu behar dira (Word, Excel edo azterketa horiek idatzi, erabili eta/edo aztertze beharrezkoa den beste edozein formatutan) eta PDF formatuan ere bai.

Dokumentazio grafikoa formatu editagarrian (dwg) eta PDF formatuan aurkeztu behar da.

Dokumentu teknikoetako edukiek euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute, honako hauek behintzat:

- memoria orokorra (a)
- planoak (h)
- aurrekontuaren laburpena (g)

Hizkuntza ez sexista erabili behar da dokumentazio guztian, indarreko xedapen eta araudiei jarraikiz.

Fase honek 3 HILABETEKO IRAUPENA izango du: Udalak aurreproiektua onartu ondorengo jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da eta dokumentua aurkeztutakoan bukatuko da. Honako hauek osatuko dute bigarren faseko dokumentazioa: Aurreproiektua garatuko duen OINARRIZKO-PROIEKTUA ETA JARDUERA-PROIEKTUA dokumentua.

6.3. HIRUGARREN FASEA: EXEKUZIO-PROIEKTUA.

6.3.1 EXEKUZIO-PROIEKTUAREN EDUKIA.

Adjudikaziodunak exekuzio-proiektua idatzi beharko du; tekniko eskudun batek (arkitektoa) izenpetuta egon behar du eta dagokion elkargo profesionalak bisatuta. Fase honetan, teknikoki garatuko da oinarrizko-proiektuan definitutako proposamena; alegia, obra gauzatzea ahalbidetuko duen dokumentua da.

Beti ere, proiektua idatzi behar da kalterik egin gabe indarrean dagoen arloko legeriak eta ETKk xedatutakoari,

eta nahitaez agiri osagarri hauekin aurkeztu behar da:

- a) Memoria: proiektuaren aurrekariak eta xedea, aplikatu beharreko araudia, obraren deskribapena, obraren egikaritzaren deskribapena, obraren egiteko modua aztertuz eta deskribatuz. Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekiko egokitzapena eta aplikagarri gertatzen diren beste lege-xedapenetan xedatutakoa betetzeari buruzkoa. Instalazio guztien azterketa, kalkulua eta diseinua.
- b) EKTren justifikazioa.
- c) Irigarritasun-legearen justifikazioa.
- d) Birgaitze-proiektuaren efizientzia energetikoaren ziurtagiria eta bukatutako eraikinaren efizientzia energetikoaren ziurtagiria (obra garaian egingo da azken hori). Proiektua idazteko garaian, bereziki landuko da eraikinaren efizientzia energetikoaren hobekuntza.
- e) Baldintza teknikoaren plegua: baldintza orokorrak, obraren deskribapenak, materialen ezaugarriak, obraren egikaritza eta obraren neurketa eta ordainketa.
- f) Aurrekontua: neurketak, prezioen koadroak eta aurrekontua osoa eta laburtua.
- g) Planoak: kokapena, oin-planak, ebaketak, instalazioen planoak, xehetasun planoak eta abar.
- h) Barne espazioen infografiak (Udalak beharrezkoa iritziz gero, ulergarri izan dadin).
- i) Eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko azterketa.
- j) Kalitatea kontrolatzeko programa.
- k) Segurtasun- eta osasun-azterketa oinarritzakoa.
- l) Lanak garatzeko programa edo obra-plana.
- m) Instalazioen proiektu espezifikoak, beharrezkoak direnak, indarrean dagoen araudiari lotuak eta haiek legeztatze eta abian jartzeko derrigorrezkoak diren oniritziekin (elektrizitate-instalazioa; instalazio hidraulikoak eta saneamendua; argiztapen-instalazioak, espazio guztien luminoteknia-azterketekin batera; eta instalazio hauek: berokuntza, aireztatze eta klimatizazioa, telekomunikazioak, informatika, telefonia eta soinu-sareak, suteen aurkako sistemak eta abar).
- n) Alarma-sistema edo sarbide kontroleko eta arrotzak antzemateko sistemak.
- ñ) Ekipamenduaren/Altzarien proposamena eta errotulazioa, aurrekontu orokorretik bereizitako atalean.
- o) Berriazko erregelamenduen menpe dauden instalazioen kasuan (instalazio elektrikoa, termikoa, gasarena, eta abar) aurkeztu behar da haietako bakoitzari dagokion baimena eta, kasu bakoitzean, industria-segurtasunari buruzko araudiek zerbitzua abian jartzeko xedatzen duten agiria.
- p) Proiektuko proposamenari dagokion Eraikinaren Ziurtagiri Energetikoa. Dokumentua pdf-n eta formatu editagarrian aurkeztu beharko da.

Oro har, proiektu teknikoak eta gainerako agiri osagarriek nahikoa dokumentazioa eduki behar dute obra eta obra-prozesua modu argian eta zehatzean irudikatzeko, gutxienezko aplikazio-irizpideei jarraituz, Administrazio Publikoetarako indarrean dagoen kontratazio-legeriaren arabera.

Proiektua egiten denean edo osatzen denean proiektu partzialen bidez edo beste agiri tekniko batzuen bidez, adibidez, teknologia espezifikoari edo eraikineko instalazioari buruzkoak, haien artean gordeko da beharrezkoa den koordinazioa.

6.3.2.- EXEKUZIO-PROIEKTUAK BETE BEHARREKO ARAUAK.

Proiektu teknikoetako agiriak eta kontratuaren gainerako agiriak baldintza batzuk bete beharko dituzte,

indarrean dagoen legeriak une oro eskatzen dituenak eta, betiere, Udaletxean aurkezten diren unean nahitaez bete beharrekoak. Besteak beste:

- Indarrean dagoen hirigintza-planeamendua.
- Indarrean dauden udal ordenantzak.
- Irisgarritasun legea, indarrean dagoena.
- Eraikin inklusiboa izateko ezarritako neurriak.
- Soinu-kutsadurari buruz indarrean dagoen legeria eta araudia.
- Eraikuntzaren antolamenduaren Legea, indarrean dagoena.
- Eraikingintzaren Kode Teknikoa (EKT), indarrean dagoena.
- Barne argiztapenaren estudioa (luminoteknikoa).
- Erregelamendu Elektroteknikoa, indarrean dagoena.
- Segurtasun eta osasun-arloari buruz indarrean dagoen legeria eta araudia eta, halaber, gune publikoetako, eraikuntzetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzkoa.
- Indarrean dagoen gainerako araudia, nahitaez bete beharrekoa.

6.3.3. PROIEKTUKO SALNEURRIAK ZENBATESTEN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Exekuzio proiektuko salneurriak zenbatesteko erabilitako irizpidea 2020ko Sektore publikoko kontratuen legearen 102 artikuluan xedatutakoa da. Horrela, bermatu nahi da lizitazio-prezioaren kalkuluan hitzarmen kolektiboetan xedatutakoa kontuan hartu dela. Aurrekontuan unitate bakoitzeko salneurriei dagozkien xehatutako salneurriak(*) agertuko dira, hitzarmen kolektiboa beteko denaren justifikazio gisa.

Unitate bakoitzeko salneurriak finkatzeko, unitatearen osaera aztertu da 3 atal hauei dagokienez: esku lana, makinak eta materiala.

Horrela unitate bakoitzeko salneurria lortzeko jarraitutako prozedura ondorengoa izan da:

Hasteko, xehatutako salneurriak(*) erabili dira.

Gipuzkoako eraikingintzaren sektoreko eskulan kostua biderkatu da unitatea gauzatzeko beharrezkoa den errendimenduarekin, unitatea bukatzeko eskulan taldeak behar duen denbora.

Era berean, unitatea gauzatzeko erabili beharreko makinaren salneurria biderkatu da elementua bukatzeko beharrezkoa den denborarekin.

Ohar garrantzitsua: proiektuak aukeratutako errendimenduak proiektugileak ezarritakoak dira. Horiek nabarmen aldatu daitezke enpresa bakoitzaren ezaugarri eta baliabideen arabera. Izatez, ezinbestean, enpresa bakoitzaren eskaintzek definituko dituzte balio horiek.

Aurreko bi elementuez gain, salneurria osatzeko, unitate bakoitzeko materialaren salneurria aztertu eta neurtu da. Datu horiek biderkatuta unitate bakoitzeko salneurrian materialen kostua finkatu da.

Bukatzeko, unitateko salneurriak osatzeko, xehatutako eskulan, material eta makinarria kostuak batu dira.

Zalantzak argitze aldera, eta argibide modura, Gipuzkoako eraikuntzaren sektoreko hitzarmenaren arabera, eskulanaren orduko kostu hauek hartzen dira kontuan unitateko prezioak zehazteko:

- Arduraduna: 31,59€/h
- Langileburua: 29,79€/h

- Ofiziala: 28,32€/h

- Peoi arrunta: 25,36€/h

6.3.4.- EXEKUZIO-PROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.

Dokumentazio guztia erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu behar da, eta paperean eta formatu digitalean (CDa/pendrivea) ere bai. 3 kopia aurkeztuko dira.

Agiri guztiak modu ordenatu eta zehatzean aurkeztuko dira idazteko eta marrazteko kalitaterik oneneko paperean, eta neurritz kanpoko edo erabiltzen zailak izan daitezkeen tamainako planoak ekidinda.

Dokumentazio idatzia eta azterketa osagarriak formatu editagarrian aurkeztu behar dira (Word, Excel edo azterketa horiek idatzi, erabili eta/edo aztertze beharrezkoa den beste edozein formatutan) eta PDF formatuan ere bai.

Dokumentazio grafikoa formatu editagarrian (dwg) eta PDF formatuan aurkeztu behar da.

Dokumentu teknikoetako edukiek euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute, honako hauek behintzat:

- memoria orokorra
- planoak
- aurrekontuaren laburpena

Hizkuntza ez sexista erabili behar da dokumentazio guztian, indarreko xedapen eta araudiei jarraikiz.

Fase honek 3 HILABETEKO IRAUPENA izango du: Udalak oinarrizko proiektua onartu ondorengo jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da eta dokumentua aurkeztutakoan bukatuko da. Honako honek osatuko du bigarren faseko aurkezpena: oinarrizko proiektua teknikoki garatuko duen EXEKUZIO-PROIEKTUA dokumentua.

7. LAN TALDEA.

Fase guztietan, lan-taldea honako teknikari hauek osatu beharko dute, gutxienez:

1. Arkitekto bat: lan taldearen zuzendaria, Eraikuntza Antolatzeko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 12. artikulua arabera, PROIEKTUAK SINATZEAZ arduratuko dena. Gutxienez, 2 proiektu sinatu eta bi obra zuzendu izana justifikatu beharko da.

2. Ingeniari bat edo arkitekto bat, eraikuntzaren egituretan aditua eta esperientziaduna, proiektuko egituren exekuzio zuzendaritzaz arduratuko dena eta, behar izanez gero, obra amaierako ziurtagiriak osatzen lagunduko duena. Gutxienez, 2 proiektutan parte hartu ala sinatu izana eta bi obra zuzendu izana justifikatu beharko da.

3. Ingeniari bat edo arkitekto bat, eraikuntza instalakuntzetan eta horiek eraikinaren efizientzia energetikoan duten eraginean aditua eta esperientziaduna/formakuntza espezializatuduna, proiektuko egituren exekuzio zuzendaritzaz arduratuko dena eta, behar izanez gero, obra amaierako ziurtagiriak osatzen lagunduko duena. Gutxienez, 2 proiektutan parte hartu ala sinatu izana eta bi obra zuzendu izana justifikatu beharko da.

4. Parte-hartze prozesurako dinamizataile bat, parte-hartze prozesuetako saioetan aditua eta esperientziaduna. Hirigintza/arkitektura alorreko parte-hartze prozesu batean gutxienez dinamizataile moduan lan egin izana justifikatu beharko du. Euskara Gaitasun Agiria / Euskara 3. Hizkuntz-eskakizuna eskuratuta eduki beharko du (lan osoaren fase batean soilik hartzen duenez parte, azpikontratatu daiteke).

Teknikari berak goian zehaztutako funtzio bat baino gehiago bete ahal izango du arlo bakoitzari dagozkion titulazioak eta esperientzia ziurtatzen baditu.

Horietaz gain, lehiaketan baloratuko da lan-taldean honako titulazio hau daukan teknikaria izatea: Bibliotekonomian eta Dokumentazioan Diplomatua, edo Dokumentazioan Lizentziatua, edo Informazioa eta Dokumentazioan Gradua.

8. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA.

Adjudikaziodunari lana aurrera eramateko baliagarria izan dakioken informaziorako sarbidea emango zaio, Udal Artxiboan dagoena, eta zehazki:

1. Indarrean dagoen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
2. Tolosako Hirigune Historikoari dagokion Plan Berezia.
3. Eraikinaren egungo egoeraren planoak, formatu editagarrian (dwg).

9. EGINDAKO LANEN JABETZA.

Kontratututako zerbitzuen emaitza, osorik edo edozein fasetan, Udalarena da; beraz, noiznahi eska ditzake emaitza hori osatzen duten dokumentuak eta datuak.

Adjudikaziodunaren betebeharra da Udalari ematea datu eta kalkulu guztiak eta Udala informatzea lanak egikaritzekoan erabilitako prozedurei eta prozesuei buruz. Kontratuari atxikitako ustiapen-eskubide guztiak Udalarenak dira, ez beste inorenak.

II. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EZAUGARRIAK.

1. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOA.

Enpresa lizitatzailleak agiri bat aurkeztu beharko du, "Memoria tekniko" izenekoa, behar bezala zenbakitua eta dagokion aurkibidearekin.

Memoria horretan, baloratu behar diren alderdiak zehaztuko dira, eman behar den zerbitzuaren egokitasuna baloratzeko adinako edukia izan beharko du, eta atal hauen arabera egin beharko da:

1. Liburutegiaren eredu berriaren azterketa.

Lizitatzailleek liburutegiaren eredu berriaren azterketa eta hausnarketa xehea egin izana erakutsi beharko dute, eraikin honetan gauzatu litezkeen proposamenak ere zehaztuz.

Trianguloa plazako 1 zenbakian sortuko den liburutegi berriaren ereduaren azterketaren eta hausnarketaren egokitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira, pleguetan adierazitakoaren ildotik. Memorian honako atal hauek adierazi behar dira:

- a) Liburutegi tradizionalaren kontzeptua gairatu behar da eta eskakizun berrietara egokituko den liburutegi eredu landu behar da. Eredu berri baten azterketa eta ausnarketa.
- b) Liburutegi inklusiboaren irizpideak zehaztea
- c) Eraikinaren ondare-balioaren azterketa
- d) Barne distribuzioaren malgutasuna: eraikina eta erabilera kontutan izanik malgutasuna eskaini dezaketzen proposamenak
- e) Eraginkortasun energetikoa eta eraikuntza jasangarriaren irizpideak eta proposamenak zehaztea, ondare babesa duen eraikina dela kontutan izanik.

Hauxe egin beharko da: memoria baten bitartez liburutegi eredu berriaren kontzeptua deskribatu eta nola gauzatu azaldu (krokisak edo beste eredu batzuen argazkiak gehitu daitezke). Horretarako, plegu honetan ezarritako oinarriak eta eraikinaren oin-planoak izango dira kontuan (gehienez DIN-A4ko 5 orri, bi aldeetara).

Bibliografia lagungarria:

- *"Manifiesto de la IFLA/UNESCO Sobre la Biblioteca Pública 1994"*.
- *"La Arquitectura de la Biblioteca, Recomendaciones para un proyecto integral"* Santi Romero; escola Sert.
- *EAEko irakurketa publikoaren mapa 2007; Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.*

2. Lana gauzatzeko kronograma zehatza, faseak zehaztuta.

Lizitatzailleek azalduko dute nola antolatuko duten talde tekniko kontratua exekutatzeko eta nola egingo den proiektuaren eta obraren jarraipena Udalarekin. Proiektuaren garapenaren egokitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira.

Hauxe aurkeztu beharko da: lan programa, kronograma edo Gantt diagrama baten bitartez epeak eta lan gauzatzeko denbora aurreikusita. Prozesua kronograman zehazteaz gain, memoria batean ere azalduko da (gehienez DIN-A4ko 3 orri, bi aldeetara).

3. Herritarren parte-hartze prozesuaren egitarauaren proposamena.

Lizitatzailleek azalduko dute nola gauzatu luketen "Herritarren parte-hartze prozesua", egitarau honako hau adieraziz, gutxienez: saioen kronograma (proiektua garatzeko faseekin lotuta), proposatutako prozesuaren deskribapena, komunikazio plan baten oinarriak, fase bakoitzaren helburua eta lan tresnak zein giza baliabideak zehaztuz.

Honako hauek baloratuko dira:

- * Herritarrenganako hartu-eman ahalbidetzea eta bermatzea.
- * Saiok antolatzeko daten eta ordutegiaren malgutasuna, eta saio presentzialen osagarri izan

litezkeen bestelako bitartekoen edo online bidezko euskarrien proposamena.

* Parte-hartze prozesuko saioetan teknikariak (arkitektoa eta liburutegi alorrekoa) egotea.

* Saio dinamikoak eta eraginkorrak antolatzeko metodologiak.

Hauxe aurkeztu beharko da: kronograma bat, herritarren parte-hartze prozesua zehaztuta duela, eta memoria bat, epeak eta lanak gauzatzeko denbora aurreikusita (gehienez DIN-A4ko 3 orri, bi aldeetara).

2. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOAREN LUZERA.

Gehienez izan behar ditu DIN-A4ko 15 orri, bi aldeetara, aurkibidea eta eranskinak barne.

Ez dira baloratuko memoria teknikoak, baldin eta ez badituzte errespetatzen oso-osorik edukia eta klausula teknikoaren pleguan adierazitako atalen ordena.

Aurkeztutako memoria teknikoak esandako orri kopurua gainditzen badu, atal horretako balorazio irizpidea 0 puntu izango da.